

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**2453** *Huts-zuzenketa, honako errege lege-dekretu honena: 3/2021 Errege Lege Dekretua, otsailaren 2koa, Gizarte Segurantzaren eta ekonomiaren arloetan genero-arrakala txikitzeko eta beste gai batzuetarako neurriak onartzen dituena.*

Otsailaren 2ko 3/2021 Errege Lege Dekretua argitaratu zen 2021eko otsailaren 3ko *Estatuko Aldizkari Ofizialean*, 29. zenbakian, Gizarte Segurantzaren eta ekonomiaren arloetan genero-arrakala txikitzeko eta beste gai batzuetarako neurriak onartzeko; bada, hutsak aurkitu ditugu errege lege-dekretu horretan, eta honen bidez zuzentzen ditugu:

22. orrialdean, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuari gehitzen zaion zortzigarren xedapen iragankorreko 4.f) apartatuan, hau dio: «f) Erregistroan inskribatutako erakundeek aldizkako egiaztapen-informazioa igorri beharko dute, xedapen honetan aipatzen den garatzeko ministerio-aginduak ezartzen duenaren arabera aribidean dituzten ziurtapen-jarduketei buruzko egiaztapen-informazioa». Baina hau esan behar du: «f) Erregistroan inskribatutako erakundeek aldizkako egiaztapen-informazioa igorri beharko dute, garatzeko emango den ministerio-aginduak ezartzen duenaren arabera aribidean dituzten ziurtapen-jarduketei buruzko egiaztapen-informazioa».

26. orrialdean, azken xedapenetako lehenaren lehenbiziko paragrafoan, hau dio: «I. tituluko I. eta III. kapituluak eta lehen eta bigarren xedapen gehigarriak...». Baina hau esan behar du: «I. tituluko I. eta III. kapituluak eta lehen, bigarren eta hirugarren xedapen gehigarriak...».

26. orrialdean, azken xedapenetako lehenaren hirugarren paragrafoan, hau dio: «II. titulua eta hirugarren xedapen gehigarria...». Baina hau esan behar du: «II. titulua eta laugarren xedapen gehigarria...».